Lanean Mugaz Gaindiko III.Enplegu Azokak 44 enpresa bildu eta 370 lanpostu eskaini ditu

Jardunaldia urriaren 22an ospatu zen Ficoban, mugaren bi aldeetako zortzi erakunde eta enplegu-zerbitzu bildu ziren eta maiatzeko edizioan baina jende gehiago bertaratu zen.

Enpresa parte-hartzaileek 135 lan eskaintza eskaini zituzten, hala nola ostalaritza, industria edo zerbitzuen sektoretan.

Irun eta Hondarribiako Udalek, Bidasoa Biziriken bitartez, joan den urriaren 22an Ficoban ospatutako Mugaz Gaindiko III.enplegu azokaren balantze positiboa egin dute. Mugaren bi aldeetako 44 enpresa eta zortzi entitate eta enplegu zerbitzu bildu zituen hitzorduak, eta guztira 135 eskaintza eskaini ziren 370 lanpostu betetzeko.

Jardunaldian, maiatzeko edizioan baina jende gehiago bildu zen. Azokaren formatuari esker, lan bila edo aldaketa profesional baten bila dabiltzan ehundaka pertsonek egun bakar batean askotariko sektoreetako hainbat enpresekin elkartzeko aukera izan zuten.

“Hirugarren edizio honek berriro erakutsi du enpresak eta lan bila edo aldaketa profesionalaren bila dabiltzan pertsonak hurbiltzea oso erabilgarria dela. Aukera paregabea da eskainitako 370 lanpostuen 135 eskaintzen kontratazio zehaztasunak zuzenean ezagutzeko eta enpresekin lehen kontaktua ezartzeko” adierazi du Nuria Alzaga, Bidasoa bizirikeko lehendakariak

Bertaratutakoek euren profila aurkeztu, lan eskaintzen zehaztasunak ezagutu eta zeuzkaten zalantzak enpresekin argitzea ahalbideratu zuen LANEANek. Enpresei aldiz, azokak, egun bakar batean hainbat hautagai ezagutu eta beraien beharrak ezagutarazteko balio izan zien.

“Maiatzarekin alderatuta, jende gehiago etorri da, eta horrek halako topaketetarako interesa dagoela baieztatzen du. Bidasoa biziriketik, enpresa sarearen eta herritarren arteko loturak errazteko lanean jarraituko dugu, bide honetan aurrera egiten lagunduko duten espazioak eta baliabideak eskainiz” gehitu du Alzagak.

Lan aukerak mugaren bi aldeetan

Mugaren bi aldeetako zortzi erakunde eta enplegu-zerbitzuren presentziari esker, mugaz gaindiko lan merkatuari buruzko orientazio eta informazio baliabideak hurbildu zitzaizkien parte hartzaileei. Informazio honek enpresek aurkeztutako kontratazio aukerak osatzen lagundu zuen, eta erakunde hauen parte hartzeak lurraldeen arteko lankidetza indartu zuen.

“LANEANek gure inguruan dauden aukerak eta laguntzakoak izan daitezkeen zerbitzuak elkar hurbiltzen laguntzen du. Mugaren bi aldeetako erakundeen arteko elkarlana ezinbestekoa da lan mugikortasuna errazteko” esan du Estitxu Urtizberea Bidasoa Bizirikeko lehendakariordeak.



Azokak aurrerapausoak ematen jarraitzen du Euskadi, Nafarroa eta Akitania Berriko enpresa sarearen eta lan bila edo aldaketa profesional baten bila dabiltzan herritarren arteko topagune gisa.

“Zuzeneko harremanek enpresen beharrak eta hautagaien espektatibak hobeto ezagutzen laguntzen dute. Hirugarren edizio honek lankidetza indartzen jarraitzera eta mugaz gaindiko enplegu-sare sendoago bat eraikitzeko elkarrekin lan egitera bultzatzen gaitu” gaineratu du Urtizbereak.

Enpresa eta erabiltzaileak azoka positiboki baloratu dute

Azokaren balorazio positiboa egin zuten enpresa partehartzaileek eta bertaratutakoek.

Bisitarien %94k esan zuen esperientzia ona edo normala izan zela. Erabiltzaileen artean errepikatutako iruzkin bat azokaren luzapena izan zen, eta bide batez, hau luzatzeko nahia. Neurri batean, enpresa, eskaintza eta publikoaren bolumenagatik izan daiteke, baina baita profilen egokitzapenaren, eskaintzen kalitatearen eta sortzen duen interesaren seinale ere.

Enpresei dagokienez, oso pozik agertu ziren esleitutako espazioarekin, azokaren antolakuntzarekin eta profilen egokitzapenarekin. Ia enpresa guztiek gutxienez 10 elkarrizketa egin zituzten eta profil interesgarriak aurkitu zituzten. Are gehiago, enpresa gehienek (%77) norbait kontratatzeko asmoa dute.

Mugaz gaindiko enplegua sustatzeko lankidetza

Azoka POCTEFA LANEAN mugaz gaindiko proiektuaren barruan kokatzen da. Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak gidatzen du proiektua, eta Bidasoa bizirik-ek parte hartzen du Lanbide, Gipuzkoako Foru Aldundia,

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua, France Travail, Cap emploi eta Mission locale erakundeekin batera.

Proiektuaren helburua mugaz gaindiko enplegu-sarea egituratzea eta laneko mugikortasunarekin lotutako erronkei erantzun bateratuak ematea da, langile eta enpresentzat aukerak hobetuz.

EFA 154/04 LANEAN proiektua Europar Batasunak finantzatu du %65ean, Mendebaldeko Eremu Funtzionalaren (AFOMEF) bidez, Interreg VI-A Espainia-Frantzia Andorra Programaren esparruan (POCTEFA 2021-2027).